

euskal eskola  
publikoaren 18. jaia  
ekainak 7 / bergaran

EHIGE gurasoen elkarte  
[www.ehige-jaia.org](http://www.ehige-jaia.org)



obatu

euskal eskola publikoari



09 aurkezpena

Euskal Eskola Publikoak 18. Jaia ospatuko du **2009ko ekainaren 7an Bergaran**. Jai hau **EHIGEK** (Euskal Herriko Ikasleen Gurasoen Elkarteak) antolatzen du Bergarako zein gainontzeko ikastetxe publikoen laguntzarekin.

#### obatu euskal eskola publikoari!

Aurtengo Jaiaren leloa "Obatu Euskal Eskola Publikoari" da. "Obatu" Bergaran erabiltzen den hitza da "ebatu" ("heldu", "oratu") esateko. Aurtengo leloarekin Euskal Eskola Publikoak "enganxatu" nahi ditugu ume, gazte eta helduak gurea Eskola onena dela uste dugulako: Euskal Eskola Publiko euskalduna, kalitatekoa, anitza, berritzailea, solidarioa, ingurugiroarekiko arduratsua...

Aurtengo leloak eta logotipoak gure eskola eta gure jai irekiak eta modernoak direla erakusten dute. Kolore abegikor eta beroen bidez guraso, gazte eta umeak erakarri nahi ditugu.

#### bergara

2009. urtean Euskal Eskola Publikoaren 18. Jaiak Bergarara eramango gaitu. Gipuzkoako hego-mendebaldeko herri hau Debagoiena eskualdean kokatzen da eta ondare artistiko paregabeaz gain, nekazar paisai ederrak ditu. Izan ere mendiz inguratuta dago eta gune historiko handia eta ikusgarria du. Eskaintza publiko osoa eskaintzen du Bergarak: haur eta lehen hezkuntza (0-12 urte), bigarren hezkuntza (12-18) eta heziketa zikloak San Martin Agirre eskolan, Ipintza BHI eta Miguel Altuna GLHBIn.

#### ehige konfederazioa

Duela 18 urte hasi ginen gurasoak Euskal Eskola Publikoaren Jaia antolatzen. EHIGE Euskal Herriko Ikasleen Gurasoen Elkarteak euskal eskola publikoko guraso elkarte gehienak ordezkatzten ditu.

Bergaran ekainaren 7an egingo den jaiak gain, EHIGEK Euskal Eskola Publikoaren baitan antolatzen diren honako beste jai hauetan parte hartzen du: Ikas-bi Iparraldeko ikastetxe publikoetako guraso elkartearen jaiak eta ekainaren 14an Berrobi egingo den Eskola Txikiaren jaiak.

#### jai partehartzailea

Beti bezala, Jai partehartzailea egin nahi dugu guraso elkarteok. Hori dela eta bertan parte hartzeri eta iradokizunak egitera animatu nahi zaituztegu. Horretarako aukera duzue Euskal Eskola Publikoaren Jaiaren web gunean. Parte hartu! [www.ehige-jai.org](http://www.ehige-jai.org)

La Escuela Pública Vasca organizará su 18ª fiesta el día **7 de junio de 2009 en Bergara**. EHIGE, la Confederación de Madres y Padres de la Escuela Pública, se encarga, conjuntamente con los centros de Bergara y toda Euskal Herria, de organizar este evento que reúne a todas las personas que forman nuestra comunidad educativa.

#### obatu euskal eskola publikoari!

El lema de este año será "Obatu Euskal Eskola Publikoari" (Engánchate a la Escuela Pública Vasca). La palabra "obatu" es la versión bergaresa de "ebatu" ("agarrar", "asir"). Con este lema queremos enganchar a niñas, niños, jóvenes y personas adultas a nuestra Escuela porque creemos que es la mejor: una Escuela Pública Vasca euskaldún, de calidad, innovadora, plural, solidaria, concienciada con el medio ambiente...

Tanto el lema como el logotipo de este año nos presentan una Escuela Pública Vasca y una Fiesta abierta y moderna. La imagen colorista del logotipo quiere "enganchar" tanto a niños y niñas como a adolescentes, padres y madres.

#### bergara

La Fiesta de la Escuela Pública de 2009 nos llevará a Bergara. Este pueblo del suroeste de Gipuzkoa, que se encuentra en la comarca del Alto Deba, cuenta con un espléndido patrimonio artístico monumental, así como un paisaje rural de gran belleza ya que ha sabido conservar su casco histórico monumental jalonado de bellos palacios y elegantes mansiones. La oferta de enseñanza pública en Bergara es completa: educación infantil y primaria (0-12), educación secundaria (12-18) y ciclos formativos que se imparten en los centros San Martin Agirre herri eskola, IES Ipintza e IEFPS Miguel Altuna.

#### la confederación ehige

Los padres y madres de la red pública llevamos 18 años organizando la Fiesta de la Escuela Pública Vasca. EHIGE, la Confederación de Padres y Madres de Euskal Herria, representa a la inmensa mayoría de las asociaciones de madres y padres de los centros educativos públicos.

Además de la Fiesta de la Escuela Pública Vasca, EHIGE colabora con otras dos fiestas importantes: la fiesta de Ikas-bi (organización de padres y madres de las escuelas públicas de Iparralde) y la fiesta de Eskola Txikiak, que se celebrará el 14 de junio en Berrobi.

#### fiesta participativa

Como es habitual, queremos organizar una fiesta participativa por lo que os animamos a que hagáis vuestras aportaciones. Para ello contáis con el blog del sitio web de la Fiesta: [www.ehige-jai.org](http://www.ehige-jai.org)

obatu  
euskal eskola publikoari

